



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
197.zkia . 2007ko apirila

UDAL BULEGO BERRIAK IREKI DIRA

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa:Marlaxka Elkarte

15. Udaletxeko eraikin berria

24. Bordari eta Satarka

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31.Martxoko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behea

20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97



Kattalin Noblia
Euskara Zinegotzia

Hitz bat babestuko nuke



Europako hizkuntza gutxituen artean aurki ditzakegu bai euskara eta bai gure herritik hurbil dauden bretainiera, asturiera, aragoiera edota okzitaniera. Hizkuntza hauek, munduan zehar aurki daitezkeen beste askok eta askok bezalaxe, globalizazioaren aurrean erronka itzela daukate. Jakina da normalizazio planak edo babes neurriak egon arren, urteak joan urteak etorri, hizkuntza hauek gero eta hitzun gutxiago dituztela. Azken urteetan zehar, European aurkitzen diren hizkuntza gutxituen joera argia erabat beherakorra izan da, nahiz eta salbuespenak ere badauden. Honen adibide gisa hartu daiteke, hauetako batzuei jada ez zaiela hizkuntza deitzen, dialekto baizik, beren hedapena muga geografiko oso txikietara egokitzen baita.

Egoera latz honen aurrean Aragoiko hizkuntza zaharra sustatu eta berbiziarazteko asmoz, Rolde de Estudios Aragonesesek ekimen berezi bat sortu zuen 1999.urtean: galzorian zeuden hitzak babesteko prozedura moduan Inter-

net sarea erabiliz. Sistema honen bitartez, erabiltzaileei aragoierako hainbat hitz babesteko aukera eskaintzen zaie, interneten ezarritako weborrian erregistratuz. Era honetan, hitz hauek museo birtual baten babespean geratzen dira, hurrengo belaunaldietakoei ezagutzeko eta gozatzeko aukera emateko.

Gaur egun, www.apadrinarpalabras.org, www.escuelade-escritores.com edo www.ateneubcn.org web orrietan aurki ditzakegu babestu diren gaztelarazko, katalanierazko edo aragoierazko hainbat hitz.

Gure hizkuntzarekiko lotura eta maitasuna adierazteko modu ederra izan daiteke horrelako babeslekua sortzea, bakoitzak berea hartutako hitza ekarriz, elkarrekin altxor linguístiko berezia sortuz.

Nor hasiko litzateke zerrenda hori betetzen lehendabiziko hitza proposatuz ?

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Uxue Zabala

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK APIRILEAN ETA MAIATZEAN

22- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea	943 644316
29- Almajano Mendelu, 26	943 640068
1- Alameda Harresilanda, 9	943 645798
6- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
13- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g	943 642191
20- Iraola San Pedro, 5	943 641027
27- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea	943 644316

TXANDAKO OKINDEGIAK APIRILEAN ETA MAIATZEAN

22- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
29- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
1- Garmendia Portuan	943 641136
6- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
13- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
20- Garmendia Portuan	943 641136
27- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212

Apirilaren 1ean hasi da TAO zerbitzua portuan



TAO sistema abuztuaren 31 arte egongo da martxan

Apirilaren 1etik aurrera eta abuztuaren 31 arte, Portuko TAO zonaldea indarrean jarri da. Baldintza desberdinak daude inguru osoan aparkaleku bat baina gehiago daudelako. Honako hauek dira bertan erroldatutako bizilagunek eskura ditzaketen txartelak:

20 zk. Txartela: Txartel bakoitzeko 30 euro ordainduz, Portuan TAO dohainik izateko eskubidea duzu.

23 zk. Txartela: Txartel bakoitzeko 50 euro ordainduz, Portuan, Ramon Iribarren, Foru Kalea, Hondartzako Aparkalekuan TAO dohainik eta Bentako aparkalekuan egoiliarren tarifa izateko eskubidea duzu.

33 zk. Txartela: Txartel bakoitzeko 20 euro ordainduz, Ramon Iribarren, Foru Kalea, Hondartzako Aparkalekuan TAO dohainik eta Bentako aparkalekuan egoiliarren tarifa izateko eskubidea duzu.

Helbide bakoitzeko bi txartela eskura daitezke gehienez.

Klink Elkarteak Eritreako gosearen aurkako kanpaina hasi du



Pedro Arrambide misiolari hondarribiarra izan zen aurkezpenean

Apirilaren lehenean hasi zuen Klink Elkarteak Afrikako Eritreak bizi duen gosete egoera ahal den neurrian laguntzeko kanpaina. Horretarako Pedro Arrambide hondarribiarraren eta Super BMren laguntza izango du, eta nola ez, Klink elkartera hurbiltzen diren bazkide eta pertsona guztiena ere.

Kanpainaren funtsa, bazkideek elkartean otorduan egin ondoren kontua egiterakoan jarriko duten kopuru gehigarria da. Kanpaina amaitzen denean, bildu den kopurua zenbatu eta Super BM-k beste hainbat ipiniko du eta Eritreara bidaliko da Pedro Arrambide hondarribiarrak sortutako Proyde erakundearen bidez.

Aurkezpen ekitaldian Joaquin Zumeta Klink elkartereko presidentea, Txema Garcia eta Juanxo Gonzalez Super BM-ko ordezkariak eta Pedro Arrambide, duela gutxi 2006ko Euskal Kooperantearen saria jasotakoa izan ziren.

Gaur egun, Arrambidek proiektu ugari dauzka abian Afrikan. "Saltsa askotan gaude sartuta, baina Klink Elkarteak sortutako ekimen hau oso ederra da. Eritrean ez daukate ezer, ezta urik ere, beraz, jendeak zenbat eta gehiago lagundu, han bizi den egoera penagarria ahal den neurrian hobetu egingo da".

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Udaleku Irekian izena emateko deialdia luzatu da

Gazteria Departamentuak Udaleku Irekia antolatu du 5 eta 11urte bitarteko hondarribiarrentzat. Uztailaren 2tik 27ra izango da eta 150 neska-mutil jasotzeko gaitasuna izango du ekitaldiak. Programa euskaraz egingo da eta partehartzaileek bere taldekide zein monitoreekin euskaraz jarduteko gai izan behar dute.

Jarduera astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara izango da, Puntala, Satarka eta Sainduan (ez da aukerazterik egongo. Antolaketa, taldeen eta adinen arabera egingo da). Ordaindu beharreko kuota 68,00 eurokoa izango da lehen seme-alabarengatik eta 57,00 euro bigarrenetik aurrera.

Aurretiko izenemateak apirilaren 16tik 27ra egin behar dira. Parte hartu nahi duen umearen datu hauek emango dira: izena, bi abizenak, jaiotze data, helbide osoa, telefonoa eta ikastetxea. Gazte Informazio Bulegoan egin beharko da (San Pedro kalea, 15 - 943 644752), astelehenetik ostiralera 16:30etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Zozketa maiatzaren 4an egingo da eta behin betiko izenemateak maiatzaren 7tik 18ra.



Udaleku Irekia 5 eta 11 urteko haurrentzat zuzenduta dago

Uda Abentura 12, 13 eta 14 urteko gazteentzat



Uda Abentura uztailan garatzen da

Gazteria departamentuak udako sasoiari begira Uda Abentura programa antolatu du. 1993, 1994 eta 1995 urteetan jaio eta Hondarribian bizi diren gazteei zuzentzen zaie, eta bete beharreko baldintza bat euskaraz moldatzeko gaitasuna edukitzea da.

Ekitaldia uztailan garatuko da, goiz eta arratsaldeko ordu-egiekin. Hala ere, aurreinskripzioak maiatzaren 7tik 12ra egin behar dira, Gazte Informazio Bulegoan. Ondoren, maiatzaren 18an zozketa burutuko da, eta hilaren 23tik ekainaren 1 arte behin-betiko izenemateak egingo dira.

Aurreinskripzioa egiterakoan, ezinbestekoa izango da izena, bi abizenak, jaioteguna, helbidea, telefonoa eta ikastetxearen izena eman behar dira.

Orotara 72 plaza daude, hamaika egunetako bi txanda egongo direlarik. Uztailaren 2tik 13ra lehena eta 16tik 27ra bigarrena. Partehartzaile bakoitzak 130 euroko kuota ordaindu beharko du.

a-dos moda

Calle Zuloaga, 14
20280 Hondarribia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 19 69

ZABALA

ZABALA

San Pedro Kalea 8
Hondarribia
Tfn. 943 642736

Balkoi loredunen lehiaketa abian dago

Hondarribian balkoiak lorez eta landarez apaintzeko ohitura sustatzeko, Kultura Sailak Lorez apaintutako balkoien lehiaketa antolatu du aurten ere. Urteik urtera sendotzen doan lehiaketa bat da, eta herrian zehar ikus daitezken balkoiei begiratzea besterik ez da egin behar.

Lehiaketan parte hartzeko zenbait baldintza bete behar dira. Hiriguneko etxebizitzan jabe eta maizter guztiek parte ahal izango dute, eta era berean, lorez eta landarez apaintutako ostalaritza nahiz merkataritza gremioek ere parte hartu ahal izango dute. Ez da izen ematerik egin behar, epaimahaia, urtean zehar, kalez kale ibiliko da eta. Izen emandako balkoietako loreen kolore, apaintasun, itxura eta orijinaltasuna kontuan hartuko dira.

Garailearentzat trofeoa eta landareak erosteko 200,00 €ko txartela, bigarren sailkatuarentzat trofeoa eta landareak erosteko 150,00 €ko txartela eta hirugarrenarentzat trofeoa eta landareak erosteko 100,00 €ko txartela. Azkenik, ostalaritza eta merkataritzako sari berezi bat dago, trofeoa eta landareak erosteko 200,00 €ko txartela, hain zuzen.



Balkoi Loredunen lehiaketa zabalik dago

Jostaldi pilotalekuaren berriztatze lanak amaitzera doaz

Azaroaren lehen astean hasi ziren Jostaldi pilotalekuaren berriztatze lanak, eta maiatzeko amaituko dira. Ibargoyen eraikuntza-enpresa da lanen arduraduna, eta sei hilabetetako epea jarri zitzaion proiektua burutzeko, eta dirudienez, aurretiaz amaituko ditu lanak. Aurrekontu orokorra 3 milioi eurokoa izan da.

Aspaldi zaharkituta zegoen frontoiaren berriztapenerako proiektuaren barne, harmailen altuera egungo legedia bete ahal izateko egokitu egin da, eta instalazio elektrikoa eta argiak egokitu dira, pilota partidak telebistak eman ahal izateko, baita iturgintza eta suteen aurkako sistemak jarri ere. Hortaz gain, zorua berritu, kantxaren ezkerreko pareta konpondu eta margotu, eta eraikinaren estalkia berritu egin dira. Lan guzti hauek Jostaldiko barnealdeari dagozkionak dira. Kanpotik ere, fatxadari tratamendua eman zaio.

Pilotalekuaren birgaitze lanek jarraitzen duten bitartean, Hondarribiko Pilota Eskolak bere klaseak Soroetako frontoira eraman ditu. Maiatzaren amaieran ospatuko den Pilota Olinpiadetan estreinatuko da lehen aldiz Jostaldi berria.



Jostaldi pilotalekuak itxura berritu egin du

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA


Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Kasino Zaharrak hamar eguneko bidaia antolatu du Calpe-ra



Calpe Valentziako Komunitatean dago

Kasino Zaharra jubilatuen egoitzak datorren ekaineko hamar egunetako txango bat antolatu du Calpera (Alacant). Herriak dauzkan ezaugarrien artean, hainbat hondartza eta kala aurki daitezke, baita ondare kultural eta historiko aberatsa ere. Ifach-eko haitza ere han dago, 332 metroko harrizko eraikin erraldoia.

Irteera ekainaren 10ean izango da, Alamedatik goizeko 8:30etan. Izenemateak gaurtik aurrera egin ahal izango dira egoitzako bulegoan. Bakoitzak gehienez bi erreserba egin ahal izango ditu.

Prezioa 337€koa da gela bikoitzean eta 457€ banakakoa. Autobusa, alojamendua eta pentsio osoa sartzen dira kopuruan. Erreserba egiterakoan NANaren kopia eta ordainketa egiaztagiria gehitu beharko da. Lankide Aurrezkian egin beharko da diru sarrera, 3035 0049 06 0490040083 zenbakian.

Kasino Zaharreko bulegoa astelehen, asteazken eta ostiralean irekitzen da, 10.30etatik 12.00etara.

Flora Martin 100 urtera iritsi den hondarribiarrak omenaldia jaso zuen

Pasatako apirilaren 6an, Ostiral Santu egunean, Flora Martin Caballero hondarribiarrak 100 urte bete zituen.

Azken urteotan hasitako ekimen bati jarraiki, Maite Pelaez Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta Aitor Kerejeta alkateordea joan zitzaizkion zoriontzera eta lore sorta bat ematera. Udal ordezkariekin batera, Fernando Etxeberria Foru Aldundiko ordezkaria San Gabriel egoitzan izan zen egun berezi honetan Flora eta bere senitartekoak zoriontzeko asmoarekin.

Argazkian ikus daitezke denak, San Gabriel egoitzara egindako bisitaldian. Zorionak Flora!!



Flora Martin, 100 urte bete zituen egunean



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Turismoak %9 egin du gora Aste Santuan

Aste Santuko turisten mugimendua igarota, datuak eta balorazioak emateko ordua heldu da. Bidasoa Turismotik esan zaigunez, okupazioa %9 igo egin da, iaz %87,17 izan bazen, aurten zifra % 96ra heldu da.

Turismo Bulegoak, Javier Ugarte kalean, 1128 bisita izan ditu, 2.535 pertsona hurbildu direlarik. Ostiral Santua izan zen egun oparoena, 267 kontsulta egin baitziren egun honetan.

Turista gehienbat estatutik etorritakoa da. Kataluniarrak dira turista gehienak, Euskadi, Madril eta Aragoiko ugari etorri direlarik. Atzeritarrei dagokienez, orotara bisitarien %15,35 izan dira, nagusiki Frantziarrak direlarik.

Hotelen okupazioaren inguruan, Hondarribian %97ko okupazioa egon da, Irunen ere oso antzekoa izan delarik (%96).

Xabier Gezala, Hondarribiko Udaleko Turismo zinegotziak esan zuenez, datuak "oso positiboak dira. Eguraldiak lehen egunetan ez zuen asko lagundu, nahiz eta gero hobera egin zuen. Hotelen eskaintza ona daukagu, eta turistek asko eskertzen dute hori. Hondarribiko Aste Santua turismo gune bilakatzen ari da, eta zentzu horretan lan egin behar dugu".



Turista batzuk Gipuzkoa Plazan

Harresien birgaitzea ekainerako amaituko da



Aurkikuntza asko egin dira birgaitze lanetan

Udalak eta Foru Aldundiak Erreginareen Baluartearen birgaitze lanen irekiera ekitaldia ekainerako amaituko da, nahiz eta hasiera batean apirilean burutzea pentsatzen zen. Aitor Kerejeta Alkateordeak esan duenez, "apirilerako bukatzea pentsatzen bazen ere, ez dugu dena presaka eta korrika egitea nahi, eta nahiago dugu fruitua bere orduan jasotzea, lanak behar bezala amaitzen denean".

Gogoratu behar da hastapeneko proiektua aldatu behar izan zela lanak egiten hasi zirenean topatu ziren aurkikuntzen garrantzia kontuan hartu zenean. Arkeologia aldetik garrantzi handiko aurkikuntza nabariak egin ziren, XV eta XVI. mendeakoa gehienak.

Erreginareen Baluartearen aztarna originalak aurkitu dira, baita harresien barnetik bere ibilbidea zuten galerietako sarbideak ere. Udaletik aditzera eman zaigunez, birgaitze lanak amaitzen direnean emango da aurkikuntza guztien berri.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Zenarruzabeitia lehendakariordea Amute auzoko lanen amaiera ekitaldian izan zen

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazioako Kontseilaria den Idoia Zenarruzabeitia eta Aitor Kerejeta lehen Alkateordeak burutu zuten Amute Zaharrean ospatu zen berrurbanizazioaren zabaltze-ekitaldian, besteak beste, Udal Zinegotzi guztiak eta Amuteko Auzo Elkarteko kideak jaso zituen ekitaldian.

Hobekuntza obrak 2004 urtearen bukaeran hasi eta 2007ko hasiera arte luzatu direla. Obra hauetan Udalak 2.714.701,40 € inbertitu ditu eta Eusko Jaurlaritzak IZARTU II programaren kontura 1.346.281 €ko dirulaguntza eman du.

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea pozik agertu zen "Hondarribiko Udalak eta Amuteko bizilagunek egin duten lan itzelarengatik. Eusko Jaurlaritzatik IZARTU programari esker proiektua kontuan hartu eta finantziazioan lagundu dugu, baina Udala eta bizilagunak izan dira protagonista nagusienak".

Bien bitartean, Aitor Kerejeta alkateordeak eskerrak eman zizkion lehendakariordeari "emandako laguntzagatik,

Eusko Jaurlaritzarengatik izan ez balitz, Amutek ez baitzuen gaur egun duen itxura edukiko. 60. hamarkadan sortutako auzo bat da, hogei urte geroago Udalak birgaitu egin zuen, eta orain, XXI. Mendean aldaketa sakona egin dugu.

Proiektu hau, aurreikusitako epean burutu da eta Construcciones Dumboa enpresak egin du Udaletxeko Zerbitzu Teknikoen zuzendaritzapean. Amute Zaharreko bizilagunek askotan eskatutako obra izan da, auzo honek lurraren egoera orografikoa dela eta, marea goraren kotetik erakitze-kota baxuegiaren ondorioz, uholde arrisku nabaria zuen, eta hori konpondu egin da orain. Honi saneamendu eta hornidura sare eskasa erantsi behar zitzaion orain arte.

Honako lan hauek egin dira: 2.200 metro lineal aldatu dira bideetako sestrera, 9.000 metro lineal zolatutako lurrarena eta 1.500 metro lineal euri eta saneamenduko uretako sarearenak, eta era berean zuhaitzen landaketa, hiri-altzari berriak, lurreko eta zutikako seinaleztapena, argiteri publiko berria eta telefonia, gas eta elektrizitate zerbitzuak lurperatzea.



Amute auzoa azken urteotan obrak beterik egon da. Etxe berrien eraikuntza alde batetik, eta auzoaren berrurbanizazioa bestetik, hankaz gora izan dugu auzoa. Orain, erabat itxuraldatuta dago, "bizilagunek eta Udalak egindako lan bikainari esker" Idoia Zenarruzabeitia Lehendakariordeak esan zuen bezala.



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEA

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

6.500 ikuslek bisitatu dute Ficoauto, Automobilaren Lehen Erakusketa



Azokak arrakasta nabaria izan du

Apirilaren hirugarren asteburuan Ficoban egin da Fico-autoren lehen edizioa, erantzun bikaina jaso duelarik. Larunbatean 2.700 lagun hurbildu ziren Erakustazokara. Kopuru hori ederki gainditu zen igandean, 3.800 ikusle baino gehiagoko zenbatekoarekin. Erakusketaren lehen edizio honen emaitza onak ikusita, ekimen hau gehitzea erabaki du Ficobak datorren urteko azoka-egutegian.

Erakusketariak ere egin dute Ficoautoren balantze positiboa. Salmenta asko zehaztu dira, batez ere erabilitako eta 0 km-ko ibilgailuen artean, baina auto berrien salmentak ere egin dira.

Ikusleek oso ongi baloratu dute eskaintza zabala, zeinetan 20 markatik gora ordezkatu diran; gainera, ikustaldi bakar batean mota askotako eta oso desberdinak diren ibilgailuei buruzko informazioa jasotzeko aukera izan dute. Ficoba Fundazioak antolatu du, eta Comercial Autolux, S.L.-ren laguntza izan du. 8.000 m²-ko azalera erabili da azokarako, eta 450 ibilgailutik gora erakutsi dira bertan.

Nazioarteko V. Kitarra Jaialdia hastear dago

Nazioarteko Kitarra Jaialdiaren bosgarren ekitaldia gainera daukagu. Apirilaren 22tik maiatzaren 1 arte, Hondarribia, Irun, Hendaia eta Donostian garatuko da jadanik sendoki errotu den jaialdi honen edizio berri bat.

Aurtengo edizio honetan, bi atal desberdindu dira. Lehen apirilaren 5etik 8ra garatu zen Peñiscolan, Hondarribiarekin anaituta dagoen herria hain zuzen. Orain jaialdia Euskal Herrira dator, eta eskaintza zabalarekin gainera.

Ekitaldien zerrenda honako hau da:

Apirilak 22, igandea. 18.00etan. Andrea Vettoretti
Hendaia: Chapelle de l'Abbadia.

Apirilak 24, asteartea. 20.00etan. Alfredo Panebianco & Vania del Monaco

Donostia: Koldo Mitxelena

Apirilak 26 osteguna. 17.30etan. Josep Manzano

Hondarribia: San Gabriel Zaharren Egoitza

Apirilak 27 ostirala. 20.00etan. Carlos Bonell

Hondarribia: Roteta jatetxea

Apirilak 28 larunbata. 20.00etan. Gaudeamus Laukotea. Giovanni Grano

Irungo Udal Kontserbatorioa

Apirilak 29 igandea. 20.00etan. Claudi Arimany (Flauta) eta Javier García Moreno (kitarra)

Hondarribia: Turismo Paradorrean

Apirilak 30 astelehena. 20.00etan. Philippe Villa

Hondarribia:

R o t e t a

jatetxea

Maiatzak 1,

asteartea.

20.00etan.

R o l a n d

Dyens

Hondarribia:

T u r i s m o

Paradorrean



Pons, Gezala, Delay eta San Martin Kale Nagusian

Aise
1971-1994

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala

Juan Laborda 2, behe

20280 Hondarribia

Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92


E-mail: aisebidaso@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

“Alfonso Sastre plazara” ekitaldia aurkeztu da



Sastreren irudi bat

Alfonso Sastre plazara jarduera-astea antolatu da apirilaren 23tik 29ra. Ekitaldi programa zabal baten bidez, Hondarribia eta Irunen garatuko den aste kultural honek merezitako omenaldia eskainiko dio Sastreri.

1926ko otsailaren 20an jaio zen Madrilen antzerki obrak, nobelak, saiakerak eta zinema gidoiak idatzi dituen idazle eta editorea. Bizitza luze eta oparoa izan du eta ez gara orain dena kontatzen hasiko, ez bailitzateke aldizkari osoan sartuko.

Irun eta Hondarribiko Udalek babestu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako programa honetan, liburu aurkezpen, erreportaia eta filmen proiektzio, erakusketa, mahai inguru, hitzaldi eta obra antzezpenak egongo dira.

Irungo Udal Liburutegia, Amaia Kultur Zentroa, Zuloaga Etxea eta Udaletxeko Areto Nagusia izango dira. Informazio gehiagorako, www.hondarribia.org gunean begiratu.

Eusko Alkartasunak hauteskundeetarako web orria aurkeztu du

Hondarribiko Eusko Alkartasunak datorren maiatzaren 27ko udal hauteskundera begira www.hondarribia-ea.com web gune berria aurkeztu du. Zuloaga Etxean egindako prentsaurerako batean, Ion Elizalde alkategaia, eta Isabel Olazabal eta Goretti Oliveri zerrenda-kideak izan ziren.

Web orria "herriarrek parte hartzeko era errez, irisgarri, anonimo eta batez ere, demokratikoena" dela esan zuen Elizalde. "Maiatzaren lehen aste arte herriarrek entzun nahi ditugu, ordurarte entzute fasean egongo gara. Gero, egitaraua osatuko dugu, neurri txiki batean dinamikoa izango delarik. Azken egunerarte hiritarrek egindako aportazio interesgarri bat jasotzen badugu, gure programa eguneratzeko prest egongo gara" gaineratu zuen Elizalde.

"Alde dinamikoa eta finkoa desberdintzen dira orrialdean. Zerrendan doazen guztien argazkiak agertzen ditugu, eta dinamismo eta dibertsioa bilatzen dugu, horretarako kiniela bat proposatzen da, hamaikako bat futbol partida bat balitz bezala, inkestak, proposamenak...".

Isabel Olazabalek aldiz, Eusko Alkartasunak hauteskundeetarako prestatu duen abestia aurkeztu zuen. "Astero biltzen gara taldekoak, zer berri egin dezakegun ikusteko.

J u a n t x o
Lapitzek ideia aurkeztu zigun eta interesgarria iruditu zitzaigun. Doi-nua ordea Juan Carlos Irizarrena da".



Ezkerretik eskubira, Goretti Oliveri, Ion Elizalde eta Isabel Olazabal

EXPERT

GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO
GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

TOMÁS ESCUDERO

Marlaxka Elkarte



Elkarte askok urte batetik bestera aldatzen dute presidentez; izan ere, askorentzat presidente izan behar hori sekulako zama da eta elkarte bateko ardurak denenak direnez gero, komeni da txandaka-txandaka ur horretatik pasatzea. Marlaxkan, ordea, ez da horrelakorik aspaldian gertatu, dozena bat urte bai baita Tomas Escudero ardura hori hartu zuela eta geroztik inork ez du bere lekukoa hartu. Halaxe, hona jarraian Tomasi egindako elkarrizketa laburra eta Marlaxkari buruz kontatutakoak.

Zer da Marlaxka? Ze helbururekin sortua, Tomas?

Marlaxka gastronomiari lotuta dagoen txokoa dela esan daiteke. 1979an sortu zen, hau da, 28 urte beteko ditu hil honetan, nahiz eta irail aldera inauguratu zen. Besta batzuekin batera ni neu ere elkarte honen sortzaile izan nintzen eta gaur egun gure elkarte gastronomiari dagokion elkarte gisa hartzen bada ere, bere sorreran kultura eta kirolari zegokion lagunen bilgune izan zen. Sortu zenean, eta beste elkarte askorekin gertatu den bezala, hiru esparruak biltzen zituen Marlaxkak: gastronomia, kirola eta kultura.

Emakume asko al dago Marlaxkan?

Emakumezkoak ere onartzen ditugu, nahiz eta gutxi diren. Gehienen kasuan, senarra bazkide izana da, baina alargun geratu eta andre askok euren senarraren lekua hartzen dute elkartearen. Banandutako bikoteak ere badira, eta kasu horretan, badira kanpoan geratutako gizonak eta elkarte bazkide izan hartu duten emakumeen

kasuak. Guk, behintzat, ez dugu emakumeen bazterketarik egiten. Marlaxka ez da hain elkarte handia; 103 bazkide ditu eta beste edozein elkarte gisa antolatuta dago. Ez dugu aparteko baldintzarik jartzen elkarte kide izateko; beste elkartearen modura, Marlaxkan sartzeko beste bi bazkideren bermea behar da eta norbaitek kide berri bat sartzearen aurka ezer esatekorik balu, bada, bere kexa elkartearen iragarki oholean jartzea besterik ez luke izango. Diru aldetik, berriz, jartzen dugun baldintza bakarra hasierako kuota gisa 600 euro ordaintzea izaten da eta gero, urteroko 100 euroko kuota arrunta elkarte aurrera ateratzeko.

Ondo konpontzen zarete elkarrekin?

Bai, ez dugu aparteko arazorik izaten elkarrekin artean. Marlaxka elkarte "erosoa" da oso edozein bazkiderentzat. Urteroko kuota ordaindu eta listo, bazkideek ez dute bestelako buruhausterik. Pentsa noraino garen erosoak, nik 12 urte darimatxadala presidente gisa, baina gustura nago, ez da batere lan astuna.



Ainara Elizondo

Ekintza asko antolatzen al dituzue urtean zehar?

Gehiegi ez, ekintza arruntak bakarrik. Jaietan, esaterako, toka txapelketa eta txotxongiloak gure esku geratzen dira. Horretaz gain, ajedrez taldea ere badugu, baina lehen esan dizudan bezala, nahiko erosoak gara Marla-kakook.

Proiekturik ba al duzue esku artean? Dirulaguntzarik jasotzen al duzue?

Bilduta dugun diruarekin sukaldea txukuntzekotan gara; uda baino lehenago sukalde gaina berritu nahi dugu. Dirulaguntzei dagokienez, ez dugu jasotzen, baina eskatu ere ez dugu eskatzen. Jaietan bai, jakina, gastuei aurre egiteko.

Udalak laguntza luzatzen digu, baina gainerakoan ez dugu dirurik eskatzen. Ez zait bidezkoa iruditzen guk gozatzeko den zerbait herriak bere poltsikotik ordaintzea.

Zein da zure zeregina, Tomas? 12 urtez presidente izanda, izango duzu zer kontatua...

Ez da hainbesterako; elkartearen zuzendaritza era-



matea ez da hain lan latza. Diru sarrerak eta gastuak kontrolatzea ez da gauza zaila. Gainera, Marla-xka ez da hain elkarte handia eta gastuak ere ez dira izugarriak.

Askotan gertatu ohi denez, elkarteetan betikoek hartzen dute parte, Marla-xkan ere bai?

Bai, gehienetan jende bera aritzen da lanean, baina beharren bat baldin badago, jendeak lagundu ere laguntzen du.

San Pedro 49, bajo 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 641 995	Zuloaga, 8 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 111 656

	GESTIÓN: CONTABLE, FISCAL, LABORAL * SEGUROS
GESTIOA: * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOA * ASEGUROAK	

Martxoko Amabirjiña



Martin Iturbe

Aurrekoetan aurrerabidean nekarren gaiari txanda kenduz, beste zerbaiti ireki nahi dizkiot gaurkoan.

“Martxoko Amabirjiña” esatean, gure artean ditugun “karitateko alabak” ditut kontutan.

Zaharrak, umezurtzak, gaisoak... etabar diren beste hainbat lekutan bezala, gure herrrian ere baditugu, San GAbriel egoitzan, hain zuzen, elkarte horretako bost emakume.

Karitateko alaben elkarteak ospe haundiz jai egiten dute martxoaren 25a.

Lehenik eta behin esan behar dut, emakume hauek ez direla “monja”, “erlijiosa” edo “lekaime”, guztiok beti deitu izan diegunera. Daramaten gainjantziaren neurriari hitzegin izan dugu, eta monjak erabilli ohi izanduten jantziak daramatzatelako kokatu izan ditugu monja-en sailean.

Beren sortzaile duten Paul-ko Bizente SAntuak, Kristau soilak izan zitezen nahi zuen. “Kristau”, “eliztar”, “laikoak” dira, beraz. Beren izen deitura egokia ahuxe da: “Hitzemaneko kristauak”. Eta leku bakoitzeko taldearen arduradunaren deitura haxe da: “Senide edo mirabe serbitzaria”.

Eta martxoko Amabirjiñ egunari begira gaudenez, karitateko alabek duten ospakizuna, beren “hitzemanak” edo “botoak” berritzean burutzen da.

Munduan zehar, ehunka izango dira, bai gizaseme, bai eta emakumeen artean “Elkarte erlijiosoak”; eta guztiak. Besteak beste, egiten dituzten “boto” horietan berdintzen dira, daramaten biziera aparte.

Beste guztiek hirutara biltzen dituzte beren “hitzeman” edo “botoak”. (Jesusen lagundikoak lau “Boto” dituzte).

Horra bada: karitateko alabak ere, lau boto dituzte: “Behartsu izatea”, “Kastitatea gordetzea”, “Menpekotasunean” bizitzea. Eta, karitateko alaben bereizitasuna nabarmentzen duen “botoa” “Behartsu eta pobreei

laguntzea” da.

“Hitzeman” edo “boto” hauek, agerikoak - “publikoak”- edo “bakarkoak”-isilekoak- ohi dira.

Beste alde, bai batzuk, bai besteak, “behin behinekoak” edo “behin betirakoak” izan ohi dira.

Eta haxe da gaur esan nahi nuen: karitateko alabek egiten dituzten “botoak”, jai ospetsuz egiten badituzte ere, talde bakoitzak bere elkarte-etxeetan, “behin behinekoak” edo “bakarkoak” direla, eta urtean behin berritzen dituztela, martxoko Amabirjiñ egunean hain zuzen.

Edozein egoera bezala, hau ere norberak bizi duenenan bakarrik ahogoza dezake. Ikustekoa da, egun horretan emakume hauen aurpegian agertzen den alaitasun eguzkitsua. Zerbait haunda gertatzen da gizakion barnean, halakoxe mailako alaitasuna sortzeko indarra dizdiratzen bait du.

Gure bost emakume hauen lanak ez du zalaparta haundiegirik zabaltzen inguruan. Zenbateko lan isilla eta ongillea egiten duten jakin gabe ezin egon liteke hondarribitar bakar bat ere.

Zer nolako goxotasun, kariño, maitasun eta onegitez laztantzen dituzten, berentarrak etxean ezin, eta haiengana eraman dituzten gizon-emakume jatorrak.

Besteak beste, gurean dauden artean, karitateko alaba horietako bat “medikua” da. Ai zer nolako zerbitzua etxe horretan, ia denak gaiso edo helbarri, ezindu edo oiñazetsu direlarik, emakume honen eskutik daukaguna.

Gureak dira aiton-amonak. Beraiek jartzen dute esku laguntzailea. “Botoak boto”, eskerronezko zorion hitza luzatu nahi nieke, beren bizi-eskeintzaz, besterena pozgarri egiteko ahalegintzen diren bost emakume hauei. Eguneko orduak luze izateaz gaiñera, gaueko edozein ordutan ohetik kaikitzea beren egitekoaren alorrean sartzen dute. Zorionak, egun haundiaren aitzakian”.

Alkateak, zinegotziek eta langileek Udaletxeko eraikin berria zabaldu zuten

Borja Jauregi alkateak ostiral eguerdian ireki zuen ofizialki Panpinot kalean dagoen eraikin berria. Bertoko bigarren solairuan egindako ekitaldi batean, zinegotzi eta udal langile guztien aurrean, Jauregik ongietorria eman zion Gizarte Zerbitzuak, Ogasuna, Kultura, Euskara, Kontratazioa eta Langilegoaren departamentuak jasoko dituen eraikinari, baita alderdi politikoen eta Langile Batzordearen bulegoei ere.

Jauregik esan zuenez, emaitza "bikaina da. Eraikin funtzionala egin nahi izan dugu, historia eta ingurua errespetatzen duen etxe ederra".

"Udalaren apustua", jarraitu zuen Jauregik, "ahal den udal zerbitzu gehienak Alde Zaharrean edukitzea da. Ahal den guztia egin dugu, azkenean kostua 2,4 milioi ordaindu dira, inoiz bukatu behar ez zuen proiektu bat izan da, baina azkenik hemen dugu zinegotzi, teknikari, alderdi politiko, eta nola ez, hiritarraren zerbitzurako".

Beheko solairuan Gizarte Zerbitzuen departamentua joango da, lehenean Kontuhartzaitzakoa, bigarrean Kultura eta hirugarrenean Kontratazioa, Langilegoa eta Euskara. Azkenik, goialdean dagoen solairuan, alderdi politikoen eta sindikatuen atala egongo da, "aspalditik Hondarribian behar genuen zerbitzua", gehitu zuen Jauregik.



Udal bulego berrien eraikuntza oso proiektu luzea izan da. Borja Jauregi alkateak irekiera egunean esan zuenez, "hasieratik erren jaiotako proiektua izan da, arazo ugari izan ditu, baina azkenean Hondarribiak eta bere hiritarrek merezi duten azpiegitura daukagu gure eskuetan". Udaletxearen atzealdean kokatzen da eraikin berria.

Apirilaren hasieran egin zen irekiera ekitaldi ofiziala. Alkate, zinegotzi eta langile guztiak izan ziren gonbidatuak, eta Borja Jauregiren hitzak entzun ondoren, luntx goxo bat dastatzeko aukera izan zen. Branka plataformako kideak ez ziren bertaratu, "hasieran esandako aurrekontutik azkenekora proiektua asko garestitu delako. Gauzak ez dira ongi egin" esan zuen Miren Legorburu zinegotziak.



Gauez eta



EAJko Aitor Kerejetak EAko Ion Elizalderi lekukoa eman zion uneko irudia

Argazkiak: Ricardo Goyogana eta Karlos Goiko.



Udalaren izenean, Kattalin Noblia, Euskarako Zinegotzia.

Euskarako Zinegotziak Olagarro Elkarteari pasa zion lekukoa



Gauez eta giro onean igaro zen Korrika Hondarribitik. Ibilbidearen azken urratsak Iruñean eman ziren, eta Nafarroako hiri-burura Bidasoa bailaratik Nafarrora igaro ondoren iritsi zen.

Korrika 15 honetan, eguraldia, lagun baino, etsai izan dugu; fenomeno meteorologiko guztiak eza-gutu ditu korrikak, baina batez ere euria, ez da egun bakar ere pasa euririk gabe. Horra hor korrika honen ezaugarria: Korrika bustia! Euriz bustia, baina baita elkartasunez, ilusioz, gogoz eta poztasunez ere.

Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Aurten ere, 10 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatu du berriz ere Korrika k. 2.150 kilometro euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe. 600.000 lagunetik gora izan dira parte-hartzaileak.

15. edizio honetan, euskal emakumeak izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera gorai-patu nahi izan ditu Korrikak. "Urtetako menderakuntza, jazartze eta zigorrei aurre egiteko eta euskal kultura eta euskara, belaunaldiz belaunaldi, gorde eta transmititzeko, euskal emakumeek izan duten indarra, adorea eta balioa" omendu ditu Korrika 15ek.

giro bikainez igaro zen Korrika

Martxoaren azken egunean pasa zen Korrika Hondarribitik. Jende ugari batu zen ekitaldira, eta giro alaia eta osasuntsua bizi ahal izan zen. Hondarribian egin ziren Korrikaren kilometroak eragile desberdinek erosi zituzten. Irungo Hondarribia kaletik etorri zen Korrika, eta lehen kilometroa EAJ/PNV alderdiak erosi zuen. Hurrengo, Amuteko zubian, EA alderdiak erosi zuen. Aireportuan aldiz, lekukoa Udal Euskarategiak eta Emezik hartu zuten.

Kale Nagusian gora Hondarribiko Udalak erosi zuen hurrengo kilometroa, eta ondoren Olagarrion Elkartek. Jarraian, Korrikaren 2176. kilometroa Arrantzaleen Kofradiak hartu zuen, eta hurrena Talaia Ikastetxeak. Postetxearen

altueran, Hondarribia Arraun Elkartaren txanda izan zen, eta Gonzalo Carrion-ek lekukoa Erraldioen Kontartsa eta Amuteko Auzo Elkarteari pasa zion.

Azkenik, Amuteko zubian, Branka plataforma izan zen Hondarribiko azken kilometroa bete zuena. Handik, euskararen aldeko martxa Irunen sartu zen Landetxako auzokideen eskutik.

Arraun Elkarteko Gonzalo Carrionek ere eraman zuen lekukoa



Euskara Batzordeak Korrika Txikia antolatu zuen, baina eguraldi txarra zela eta, ikastetxeetan ospatu behar izan zen



Nahiz eta ezin izan zuten kalera atera, haurrak pozik agertu ziren

Ostiral Santuko prozesio arrakastatsua burutu da aurten ere

Ostiral santuko prozesioak Gipuzkoan xarma berezia badu, hori Segura eta Hondarribian da. Bere hirigune historikoek Erdi Aroko ezaugarriak mantentzen dituzte. Hondarribiari dagokionez, kale harriztatuekin eta etxe zaharrek, mendez mende Ostiral Santuaren, Guruzpidearen, Eraistearen eta Entierroko Prozesioaren, edo isiltasunaren prozesioa bezala ere ezagutzen denaren lekuko izan da.

Berez, dokumentazioa 1602 urtekoa da, nahiz eta honen antzinatasuna handiagoa den. Sagarrondoko Andre Maria Elizan Jaunaren Heriotzaren Liturgia-Ospakizuna egin ondoren (17.00etan), prozesioari hasiera ematen zaio, non hamar irudik Hirigunea zeharkatzen duten.

Pauso bakoitza sotana marroiaz jantzitako lau lepararik daramate. Pauso bakoitzaren atzean soldadu erromatarrak, hamabi apostolu eta gizonezkoen bi lerro-eskuetan doaz kandela handiak

daramatzatenak- doaz, publikoa liluratuta uzten duen isiltasunean murgilduta.

Prozesioa eliz kabildoak ixten du, aurretik Udal Banda duelarik, Chopin-en Hileta Martxa joz.



Nahiz eta aurreko egunetan eguraldia oso txarra izan zen, azkenean, Ostiral Santuz denok espero genuen eguzkia agertu zen, eta Prozesioa behar bezala burutu zen. Irudietan ikus daitekeenez, inoiz baina jende gehiago bildu zen Kale Nagusian prozesioa ikusteko.

Argazkiak:
Fernando de la Hera

Hondarribia-Irunentzat amaitu da denboraldia

Amaitu da 2006/2007 denboraldia Hondarribia-Irun taldearentzat. Uste baina lehenago amaitu gainera, urte osoan denboraldi bikaina osatu ondoren, badi-rudi azken partidetara indar gutxirekin heldu direla, eta azkenean, nahiz eta lan txukuna osatu, zapore garratza geratu da jokalaria, zuzendari eta zalegoaren baitan.

Liga txapelketa bikaina burutu dute Jon Txakartegik entrenatzen dituen emakumeek. Laugarren tokian sailkatu ziren, eta bosgarren sailkatutako Bartzelona suertatu zitzairen play-off delakoetan. Azken hau, denboraldi amaierara oso indartsu iritsi da, eta hala erakutsi zuen, Hondartza Kiroldegian 55-71 erraz gailendu ondoren. Bigarren neurketan ezinbestekoa zuten bidasoarrek garaipena, baina 74-72 galdu zuten, nahiz eta Iziane Castro brasildarrak 41 puntu lortu. Jokalari, entrenatzaile eta presidenteak, epailearen lana kritikatu egin zuten etxeko taldeari mesede egin ziela-koan.

Erreginaren Kopa txapelketan, finalerdietara heltzea lortu zuen Hondarribia-Irunek. Ros Casares talde boteretsuaren aurka galdu ondoren agur esan behar izan zuten. Eurocup lehiaketan, Europako Txapelketa izan dena orain arte, bigarren aldiz lehiatu dira Txakartegiren neskak. Lehen fase bikaina burutu zuten, ondoren Sofiako CSKA ere alde batera utzi zuten, baina orduan Italiako Faenzarekin topo egin zuten, eta azkenean Europako txapeldunorde geratu den taldearen aurka galdu egin zuen Hondarribia-Irunek.

Nieves Alza taldeko presidentea pozik agertu da. "Azkenean ezin izan dugu Bartzelona gainditu, baina analisia egi-terako orduan gauza asko hartu behar dira kontuan. Zer nolako aurrekontua dugun guk eta beste lehiakideek, izan ditugun lesioak... Hala ere, pozik egoteko moduan gaude, eta datorren urteko taldea osatzeko lanean hasi behar dugu orain".



Denboraldi bikaina burutu ostean, amaiera garratza izan dute Jon Txakartegik entrenatutako emakumeek.



**eukeni
optika**

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

**Focus
DAILIES™**

Ikusmen egokitzeko
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



Istiluak arrantzan Frantziak legea ez errespetatzeagatik

Arrantzaldi esperimentala hilaren 23an hasiko da, eta litekeena da hartutakoa saldu ahal izatea

Bizkaiko Golkoan antxoatara joandako ontziak erretiratzeko exijitu dio Frantziari Europako Batzordeak. Hilaren 23an hasiko da kanpaina esperimentala, 10 ontzik jardungo dutelarik -gerora agian 28, arrain nahikoa badago- eta, printzipioz, harrapatutakoa saldu egingo da. Komertzializazioari buruzko txosten juridikoa prestatzeko eskatu dio aditu talde bati. Eusko Jaurlaritzak, ordea, iragarria du eragotzi egingo duela egunotan hartutako antxoa arrandegietara iristea. Zorrotz ikuskatuko ditu Frantziatik datozen kamioiak, Arrantza sailburu den Gonzalo Saez de Samaniegok ohartarazi duenez.

Gipuzkoako eta Bizkaiko arrantzaleek aldarte onez hartu dute Jaurlaritzaren erabakia. "Gobernu autonomiko guztiek berdin jokatu beharko lukete", Bizkaiko kofradietako presidente Iñaki Zabaletaren arabera. "Lotsagarria da inork legez kanpo arrantzatutakoa saltzen uztea". Oso haserre dago bai Europako Batzordearekin, bai Espainiako Gobernuarekin. "Frantziari men egitea" leporatu die biei.

Jaurlaritzak argiago hitz egin du. "Ontzi komertzialak zientzialariek batera ibili beharko lukete, portura harrapatutakoa deskargatzen joan gabe". Samaniegok onartezin iritzi dio Frantziako ontzien eta Gobernuaren jokabideari. "Ez dute Bruselaren erabakia errespetatu, arrantzan joan dira eta harrapatutakoa saldu egin dute". Igandetik hona gutxien zazpi tona antxoa hartu dituzte Frantziako ontziek.

Norberto Emazabel Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiako presidenteak esan duenez, "giroa oso pipertuta dago. Guk beti itsasoak behar dituen tresnekin aritzen gara, ingurugiroari eta arrantzari errespetua gordetzen diogulako. Aldiz, Frantziak legalak ez diren tresnak erabiltzen dituzte arrantzatzeko, eta Europar Batasunak, Frantzia zigortu beharrean badirudi saritu egiten duela. Frantziak indar asko du European, eta Espainiak ez, hori da gertatzen dena".

*Norberto Emazabel,
Kofradiako Abate
Nagusia*



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA



Arrantzaleen Kofradiak 28 itsasontzi ditu munduko uretan

Esku artean daukazuen ale honetatik hasita, hilero orrialde bat emango diogu arrantzari. Asko dira Arrantzaleen Kofradiak sortzen dituen berriak, eta agian ez dira hiritarregana behar bezala iristen. Hori dela eta, Hondarribia aldikarian hilero arrantzaleekin zerikusia duten berriak kaleratuko ditugu.

Lehen atal honetan, gaur egun Hondarribiko flotako kideak diren itsasontzien eta patroien zerrenda dakarkizuegu. Ikus daitekeenez, 20 ontzi handi eta 8 txiki daude. Hortaz gain, martxoan zehar arrantzaleek jaso dituzten harrapaketen berri eman ere, Fermin Olaskoagak bildutako datuei esker.

Barkua	Armadorea
AITA RAMON	Melchor Sorondo Elzo
ARANTZAZUKO IZARRA	Jose Antonio Martiarena Larraza
ARTXANDA EDER	Josu Elduayen Diaz de Corcuera
BERRIZ AMATXO	Fermin Amunarriz Mubiedro
GURE AMA MARTINA	Julian Larrarte Azpillaga
GURE ITXAROPENA	Juan Pio Alza Tellechea
MARINEL	Telmo Martinez Garmendia
NUEVO ROBERT	Jorge Zapirain Perez

ARRANTZALE KOFRADIAN MARTXOAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 302,30 kilo
Sardina (Sardina pilchardus): 34.833,60 kilo
Berdela (Scomber scombrus): 1.259.540,80 kilo
Dorada edo Urraburu (Sparus aurata): 27,20 kilo.
Zapatari (Gerris): 21,00 kilo
Erla (Lithognathus mormirus): 903,60 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 2.181,80 kilo.
Korrokoi (Chelon Labrosus): 375,60 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 1.372,80 kilo.
Lupina (Dicentrarchus labrax): 6,60 kilo.
Zapo (Lophius): 70,80 kilo.
 Bestelakoak: 40,00 kilo.

Fermin Olaskoagak jasotako datuak

Barkua	Armadorea
AITA FRAXKU	Emilio Salaberria Susperregi (Ozeano Indiko)
ARDORAN	Bernardo Bandres Elduayen
ARRANTZALE	Fco. Javier Emazabel Olaso
ARRILLAGA	Emilio Salaberria Susperregui
ATTONA DOMINGO	Pedro Oronoz Lizargarate
BERRIZ MATUTINA	Meltxor Amunarriz Emazabel
BERRIZ SAN FRANCISCO	Jesús M ^a Amunarriz Berrotaran (Senegal)
DIOS TE SALVE	Luis M ^a Ribes Susperregui
GUADALUPEKO AMA	Ramon Emazabel Zabala
GURE AMUITZ	Jose Enrique Susperregui Uruen
ITSAS EDER	Eugenio Elduayen Eizaguirre
ITSAS LAGUNAK	Bernardo Sistiaga Segurado
KERMANTXO	Severo Alcain Alza (Ozeano Indiko)
KUKU ARRI	Oscar Kanpandegi Martinez
LUIS BARRANKO	Jose M ^a Emazabel Susperregui
NVO.HORIZONTE ABIERTO	Iñigo Olascoaga Aguirre
PITTAR	Juan Jose Susperregui Velez de Mendizabal
SAN FERMIN BERRIA	Juan Carlos Eizaguirre Echegoyen
TUKU-TUKU	Norberto Emazabel Zabala
TXINGUDI	Jose Antonio Aguirre Oronoz

La **bacaladera** S.A.U.

Pasaia Salado

Pol.n.Chumarra - Escorza - 20300 Irun

Telf: 943 63 90 33 Fax: 943 63 06 70 www.bacaladera.com



Enpresak sortzeko mikro-kreditoak emango dira Bailaran

Bidasoa Bizirik eta La Caixa-k gehienez 15.000 euroko kreditoak emango dituzte Irun eta Hondarribian enpresak sortu nahi dituztenei

Bidasoa Bizirik, bailarako garapenaren alde lan egiten duen agentziak eta La Caixa-k duela egun gutxi hitzarmen bat sinatu zuten bailaran sor daitezken enpresak laguntzeko mikro-kreditoen bidez. Akordio berriari esker, enpresak sortu nahi dituzten pertsonen, gehienez jota 15.000 euroko kreditoak luzatuko zaizkie ahalik eta egoera onenetan.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Bidasoa Bizirik-en izenean presidente, bigarrena eta zuzendaria, Miguel Angel Paez, Aitor Kerejeta eta Eva Fernandez, eta La Caixaren ordezkari moduan, Pedro Maria Bartra.

Aitor Kerejetak esan zuenez, "practican, pertsona askorentzat oso baliagarria izango den zerbaiten aurrean gaude. Autoenplegua eta ikasketak Gipuzkoako ekonomian ezinbesteko zerbait dira, historikoki definitzen gaituztenak. Ibilbide zaila da, baina Bidasoa Bizirik-en enpresa bat sortu nahi dutenei begira laguntzeko azpiegitura sendoa genuen, eta orain, La Caixa-ri esker mikro-kreditu hauen, gazte eta sortzaileei beharrezkoa

duten laguntza eskaintzeko moduan gaude".

Bidasoa Bizirik agentziak "aurten Irun eta Hondarribian 100 enpresa berri sortzea espero du, bere aholkularitza zerbitzutik maneiatzen diren datuei jarraiki. Urtero, 300 enpresa ideia inguru aholkatzen dira agentzietatik, eta horietatik 100 aurrera ateratzen dira" esan zuen Eva Fernandez agentziako zuzendariak.

35 urte ingurukoa

Aholku eta laguntza bila etortzen den pertsonaren profila Miguen Angel Paez-ek azaldu zuen. "35 urte inguru ditu, gizon edo emakume, gizonezkoak %51 baitira eta emakumezkoak %49 ikasketa ertainak burututakoak, gehienbat lanbide heziketako goi graduak ikasitakoak direlarik".

Azkenik, Pedro Maria Bartra La Caixako ordezkariak esan zuenez, "laguntzeko prest gaude. Bidasoa Bizirik-ek seriotasuna agertu du, eta ahal den neurrian gazteak eta sortzaileak laguntzea da guztion helburua, beti ere Hondarribia eta Irungo ekonomiaz onaz zango delakoa gaude eta".



Ekitaldian Bidasoa Bizirik eta La Caixa-ko erantzuleak izan ziren

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA
Telf.: 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Mendibururen 'Txalaparta' berriz jarri da Guadalupen

Gaur goizeko hamaiketan burututako ekitaldi xume batean jarri da berriz ere Guadalupeko zelaietan, Remigio Mendibururen "Txalaparta" izeneko eskultura. Pasa den urteko urrian ezezagun batzuk, obra lapurtzen saiatu ziren eta ondorioz kalteak eragin zizkieten.

Udalak eskultura kendu egin zuen eta Irungo Gonzalez tailerrean konpondu ondoren, gaur goizez Xabier Gezala, Marilis Goñi Udalaren aldetik, eta Izotz eta Ekantz Mendiburu familiaren ordezkari bezala egon diren ekitaldi batean, lehengo toki berean jarri da.

San Markos eguna igaro arte hesi batekin estaliko da, egun honetan Guadalupen biltzen den jende kopuruak kaltea sor diezaiokelakotan.



Marilis Goñi, Xabier Gezala, Izotz eta Ekantz Mendiburu izan ziren ekitaldian

Joseba Llorente lehen mailan ariko da datorren denboraldian

Unai Emery entrenatzaileak bide bera jarrai dezake datozen asteotan

Azken egun hauetan hondarribiar bat futbolaren eztabaida askoren tartean dabil. Joseba Llorente Valladolid-eko aurrelaria, datorren urtean Lehen Mailan ariko da, 2006/2007 honetan denboraldi bikain bat burutu ondoren.



Hondarribia Futbol Elkarte-
an eman zizkion lehen ostikoak baloiari, eta laster joan zen Donostiko Errealera. 1979ko azaroaren 24an jaioakoa, 1,84 eta 72 kilo, Hondarribiko semeak azken lauzpabost urte izugarri daramazki Errealetik irten zenetik. 2003/2004 eta 2004/2005 denboraldiak Eibarren eman zituen, eta hurrengo biak Valladoliden.

Joseba Llorente Valladolid-eko aurrelaria da

Betidanik izan da goleatzailea, baina azken lau urteetan goleatzaileen sailkapeneko goi postuetan egon da. Aurten, nahiz eta sei partidatan ez den aritu lesio bat dela eta, 17 gol sartu ditu eta taldeko gizon garrantzitsuenetako bat da. Sari bezala, datozen urtean Lehen Mailan ariko da, aspaldian bilatu duen helburua aurkitzea lortu duelarik.

Datozen asteotan, gauzak asko okertzen ez badira, beste hondarribiar bat aurkituko dugu Lehen Mailan hurrengo denboraldian. Unai Emery, Bigarren Mailako Almeria taldearen entrenatzailea da, sekulako lana egiten ari da eta badirudi fruituak berehala jasoko dituela. Zorionak bi hondarribiar hauei!

OTXOA

JANARIDENDA

Barazki, fruta eta horrelakoetan aukera handia

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

SATARKA B MAILA**1.SARIA ETA HONDARRIBIKO SARI BEREZIA****HITZAK**

Uxue Zabala Urigain

Hitzak dakartza haizeak
basoak aldeturik,
hitz berberak
errekak behin eta berriro,
su inguruan bilduta
inor ez da mintzo,
zain eta zain gogaitua
ze itxaropen?

Hitzak soberan daude
maitasuna dagoenean,
iluntzerakoan ere
hitzak hori dira soilik,
hitzak soberan daude
maitasuna dagoenean;
hitzez kondenatua,
hitzez epaitua,
hitzez hitz zigortua,
hitzez hitz gorrotatua,
munduko hiztegi oro
ari da negarrez.

Aditzak beldurtuak,
ikaratuak
geldi-geldi daude.

Hitzak soberan daude
maitasuna dagoenean.

Amets egin nuen
izarren artean
zu ikusi zintudan
gau ilun hartan

nire alboan
nirekin batera,
beste izar bat zinelarik
nire bidea argitu zenuen
elkarrekin maitatuz,
amestuz,
barre egiten,
negar egiten,
irribarrez esan zenidan:
"maite zaitut"
inoiz bilatu gabeko
sentipen hitzak.

Denbora azkar igaro da,
sinetsi nahi izan dut
orain eta beti
nire ondoan egongo zarela
behin eta berriz.

Zuk esandako maitasun hitz haiek
nire buruan gordeta daude.

Dena izan zinen niretzat
ni zuretzat bezalaxe;
nire bihotza,
nire birikak,
nire gorputzeko zati oro.

Ilargia itzali zen gau hartan,
batu ziren gure bihotzak.

kai zahar
pub
almirante alonso, 12

kai zahar

truck
diskoteka
foru kalea, 13

TRUCK

kaialde

jatetxea • restaurante
erretegia • asador
itsasargi 8 • 20280 • hondarribia
tel.fax 943 644 622 • kaialde@yahoo.es

'Ester' erako C bitaminaren inguruan

Aspalditik ezagutzen dira C bitaminak osasunean eragiten dituen mesedeak, besteak beste, ADNa zenbait eragin kaltegarritatik babesten duelako C eta E bitamina antioxidatzaileak, hainbat minbizirekin erlazionatutako erradikal askeen aurka eragiten dutela ere gauza jakina da, minbizia prebenitzeko onuragarriak direla esan ohi da.

Bitamina honek dauzkan alderdi positiboak handiak badira, zer esanik ez Ester-C Plus produktuak dauzkanak. Frogatuta dago C bitamina ohikoak daukan aktibitatea bikoiztu egiten duela, zelula eta ehunetan ohikoak baino iraupen bikoitza duela, eta lau aldiz errezago irensten dela.

Erabilera ohikoenak, gripe, infekzio, zauri eta hausturak sendatzeko gaitasuna eta alergia zein desintoxi-

kazioen aurrean indar handiagoa ematen digutela ikertu dute arloko ikerlariek.

'Ester' erako bitaminak aportazio ugari dituzte. Hala ere, informazio gehiagorako, zure denda edo belartegian galdetzea duzu aukera onena.



ien HondarriBIO!

txuntxumela

tu pequeño • **SUPER BIO**

premio "mejor tienda" BIOCULTURA Barcelona 2006

SERVICIO A DOMICILIO
HENDAI-A-HONDARRIBIA-IRUN
Santiago kalea, 33. Hondarribia
Biotxuntxu@terra.es
9 4 3 6 4 1 4 5 0

txuntxumela ECOTIENDA BELARTEGIA

txuntxumelate! es bio, es lógico!

LECHE SOJA • CALCIO 2
LECHE DE AVENA 12
OTRAS LECHE
REDUCE EL COLESTEROL
ES BIO, ES LÓGICO

Ofertas Eskaintzak

- Aloe Vera Xanpu 200ml: 13,25€
2 unitate %20
- Aloe Vera Gela 100ml: 7,50€
2 unitate %20
- SHIITAKE pate begetala: 3,20€
2 unitate %30
- LIMA txokolatzeko batidoa 200ml:
1,10€ - 2 + 1 dohainik
- QI Te berdea mentarekin: 3,65€
2 unitate % 30
- ROBIS erregina-jele 1800mg: 18,88 €
2 unitate %20 edo 2+1 dohainik

.Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditik aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismora arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzaz izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarratasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die gutziet.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirian barrena irudimezez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, inguruari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzea gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarela, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



Zure aisialdirako, Gazte Informazioa

%100 GIPUZKOA INGURUNE MOBILA



%100 GIPUZKOA on-line lehiaketa bat da eta Gipuzkoako nerabe guztiek har dezakete parte. 12-18 urte bitartekoentzat da. Web gunean izena eman behar da, bakarka edo taldeka parte har daiteke eta mobilmetraiek ezingo dute 60 segundu baino gehiago iraun. Hiru sari daude: mobilmetraia onena, euskaraz sortutako mobilmetraia onena eta erabiltzaileen saria. Epea: maiatzak 31. Animatu eta bidali sure mobilmetraia!!!!

Informazio gehiago: www.gipuzkoamobil.net eta GIBen.

TRENEZ BIDAIAU: INTER RAIL BERRIA



Inter Rail Europatik eta Marrokotik barna bidaiatzeko modu desberdina eskaintzen duen tren txartela da.

Txartelak 16 edo 22 egunetan edo hilabete batean mugarrik gabe bidaiatzeko aukera eskaintzen dizu.

Guztira 8 geografia-gune daude eta txartelaren prezioa bere iraupenaren, eragina duen guneen eta zure adinaren arabera da.

Informazioa gehiago eskuratzeko sartu www.gazteukera.net-en.

teaukera.net-en.

Udan bidaiatu nahi baduzu, Inter Rail-a aukera ezderbin bat izan daiteke!!

UDAKO EKINTZAK

Jakin nahi baduzu udarako antolatzen diren ekintzei buruzko informazioa, pasa zaitzez bulegotik.

Udalekuak, Hondarribiko udaleku irekiak, udabentura, auzolandegiak,... aukera anitz dago adin guztientzako!!!

Animatu eta partehartu!!!!



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Non kokatuko zenuke paraje hau ?



Heldu gara berriz ere irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Lehiaketan parte hartzen duen jende kopurua ikusita, irakurri eta parte hartzen duen jende asko dagoela ikusi dugu, eta guztiek gainera erantzun ego-kia ematen dutela ere. Martxoko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote.

Oraingo honetan paraje hau non kokatuko zenuken galdetzen dizugu. Makila hartu eta ibiltzera joaten zarenean, ziur askotan ingurutik pasa zarela. Gogoratzen bazara, paper batean idatzi eta Udal Euskara Batzordera bidali maiatzaren 11 baino lehen. Azken aleko galdera erantzun dutenen artean bat hautatu behar, eta zozketaren irabazlea **Luis Oronoz Gonzalez** izan da. Berari dagokio beraz bi pertsonentzako afaria Beko Errota jatetxean.

Datozen aleetan, bigarren sari bat banatuko dugu Lehiaketan parte hartzen dutenen artean. Liburu sorta bat prest daukagu Euskara Batzordean lehiaketaren bigarren garailearentzat. Apirileko ale honetan, irabazlea **Idoia Taberna Ariztegi** izan da. Euskara Batzordetik pasatzea besterik ez du, udal bulegoen eraikin berriaren hirugarren solairuan.



Gosariak
Eguneko menuak:
 4 sarrerako
 4 bigarren platera
 Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
 Telf. 943 645 597
 20280 HONDARRIBIA

eguerdiko menuak
 sukaldaritza berria
 eguneroko plater berriak
 gaez, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
 20280 hondarribia



Aste Santuaren inguruko altxor bat



Berriro ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriak irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Aste Santuaren duela gutxi igaro da, baina ezinbestekoa genuen gaiari loturiko irudiren bat argitaratzea. Dudak dauzkagu argazkiari buruz, badirudi prozesioa dela, baina Hermandadearen aurrez aurre daudela ikusita dudak sortarazten dizkigu. Irudia ikusita zerbait bururatzen zaionari, bai zer ospatzen den, bai bertan agertzen den norbait bere sendikoa badu... bidal dezala informazioa Udal Euskara Batzordera, edota zifcomunicacion@terra.es helbidera.

Etxean horrelako altxorak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Hiqer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Martxoa2007

JAIOTZAK

1ean: **CLAUDIA Touriño Martinez**, Donostiako Rufino eta Madrileko Almudenaren alaba.

2an: **JULEN Etxeberria Mendizabal**, Hondarribiko Josuneren semea.

4an: **SALOMON NELSON Constantin**, Resita-koa (Errumania) Ovidio Dorel eta Resita-ko (Rumania) Andrea Cosininaren semea.

7an: **NORA Amunarriz Berges**, Hondarribiko Patxi eta Irungo Ainararen alaba.

8an: **NAIA Lekue Iza**, Ondarroako Jesus Maria eta Hondarribiko Maria Juncalen alaba.

12an: **LOREA Elduayen Vila**, Hondarribiako Jose Manuel eta Berako Juliaren alaba.

12an: **SARA Zaheer**, Rawalpindi-koa (Pakistan) Ahmed eta Pakistango Fillizeren alaba.

13an: **MARIA Serrano Olazabal**, Irungo Juan Ignacio eta Hondarribiko Maria Joseraren alaba.

14an: **ODEI Txurruka Etxeberria**, Hondarribiko Gerardo eta Irungo Aintzaneren semea.

14an: **CANDELA Gomez Dueñas**, Donostiako Jose Miguel

eta Irungo Rebecaren alaba.

16an: **JULEN Sirvent Luis**, Corpentos-ko (Frantzia) Angel eta Irungo Cristinaren semea.

16an: **NORA Gutierrez Jaurrieta**, Hondarribiko Mikel eta Hondarribiko Amaiaren alaba.

20an: **MILA ROSE Lesage Hendoux**, St Soulne-koa (Frantzia) Harre eta Lille-ko (Frantzia) Geraldineren alaba.

21ean: **IRAIDE Arizmendi Azpitarte**, Hondarribiko Jon eta Hondarribiko Saioaren alaba.

24an: **ANE Sanchez Aiala**, Irungo Iñaki eta Irungo Patricia-
ren alaba.

24an: **MAITE Sanchez Aiala**, Irungo Iñaki eta Irungo Patricia-
ciaren alaba.

24an: **ADRIANO Vazquez Garcia**, Donostiako Mikel eta Donostiako Zoila Noemiren semea.

28an: **NAIARA Espinosa Angulo**, Donostiako Daniel Joaquin eta Donostiako Ruthen alaba.

30ean: **OIHANE Garcia Herce**, Donostiako Julio eta Donostiako Soniaren alaba.



EZKONTZAK

3an: **MANUEL Lojo Ollaquindia**, Donostiakoa, eta **ANE Legorburu Galaieta**, Pasai Donibaneakoa.



3an: **GONZAGA Ribes Martin**, Hondarribikoa, eta **ITSASO Berra Errandonea**, Hondarribikoa.

3an: **IÑIGO Garaikoetxea Tijero**, Tolosakoa, eta **ANA MARIA Lizarraga Irigoien**, Iruñakoa.

3an: **JOSE MARIA Arozena Larralde**, Irungoa, eta **MARIA ICIAR Madejon Sanchez**, Alza-Donostiakoa.

17an: **MIKEL MIRENA Arrillaga Lujambio**, Erretereriakoa, eta **AMAIA Sagarzazu Errazkin**, Hondarribikoa.

24an: **AGUSTIN Iriondo Arozena**, Irungoa, eta **BEGOÑA Arrillaga Zunzundegi**, Hondarribikoa.

31n: **ENDIKA JOSEBA Ezkerra Lekuona**, Irungoa, eta **FELICIA Horvath Cirpaci**, Deta Tinis-koa (Errumania).

31n: **MIGUEL ANGEL Aparicio Bausili**, Avileskoa, eta **MARIA ARANZAZU Etxaniz Robles**, Irungoa.

31n: **IMANOL Etxabe Iturzaeta**, Donostiakoa, eta **MARIA MICAELA Garcia Gonzalez**, Irungoa.

31n: **GORKA Eizagirre Alza**, Hondarribikoa, eta **OIHANA Guenaga Munduate**, Irungoa.

HERIOTZAK

Otsaileko 28an: **Angel Zubeldia Garaño**, Hondarribikoa, 88 urte, Donibane Lohitzunen.

2an: **TRIFONA Martin del Monte**, Riofrio-koa (Avila), 83 urte, Santiago kalean

5ean: **JUAN Iridoi Sagarzazu**, Hondarribikoa, 79 urte, Ziburun.

10ean: **PABLO Auzmendi Itxaso**, Hondarribikoa, 83 urte, San Gabriel egoitzan.

18an: **WALDO Losada Alvarez**, A Coruña-koa, 92 urte, Leiba Jenerala kalean

18an: **ENRIQUE Escalante Ozalla**, Irungoa, 62 urte, Gibeleta etxadian.

20an: **RAMONA Arruabarrena Saralegi**, Hondarribikoa, 86 urte, Ubilla kalean.

20ean: **IÑAKI Martiarena Agirre**, Irungoa, 46 urte, Lapurdi kalean

23an: **MANUEL Iñarra Lekuona**, Hondarribikoa, 78 urte, Butron Pasealekuan.



MARTXOAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Temperaturarik goren:	27,8° C, hilaren 4an.
Temperaturarik beherena:	2,9° C, hilaren 22an.
Bataz besteko tenperatura:	11,1° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 72.
Euri-litroen kopurua:	185,6 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 30ean 25,4 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 8ko 3,25etan, 14,4 litro.
Egun euritsuak:	16 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	4 egun
Ekaitz egunak:	5 egun
Behe-laino egunak:	0 egun
lhintz egunak:	9 egun
Eguzki kopurua:	107,5 ordu
Bataz besteko presioa:	1019,7 milibar
Presiorik goren:	1040,3 milibar, hilaren 10ean
Presiorik beherena:	1002,1 milibar, hilaren 19an
Haizea >55 Km/ord.	6 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 7ko 16,42tan, 93 Km/ord.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MARTXOAN

Altak:Jaiotzak: 19, eta kanpotik etorriak: 57
Bajak:Hildakoak: 8, eta herritik joanak: 53
Bizitanle kopuru orokorra: 16.414 bizilagun.

MARTXOAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 482 euskaraz, 1640 gaztelaniaz eta 46 bestelakoak. Guztira: 2168 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 45 euskaraz, 211 gaztelaniaz eta 66 bestelakoak. Guztira: 268 liburu.

Bazkide berriak: 19 gizon eta 19 emakume. Horietatik 19 heldu eta 19 haur. Guztira 38.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:

Euskeraz:Euskal Leiendak.- Erein.

Gaztelaniaz:MORA, Victor. - El jabato.- Ediciones B.

Helduak:

Euskeraz:IZAGIRRE, Koldo.-Rimmel. - Susa.

Gaztelaniaz:FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18

Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA





**URTE
25
ANOS**

Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezen

1982 - 2007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

Argazkia: "Argazkiak, Hondarribia atzo"
Jose Maria Castillo



www.doble-a.com



Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak